

GIPUZKOAKO

ARTZAIN  EGUNA

LEGAZPIN

2011ko Irailaren 4an - Euskal Herria Plazan



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



LEGAZPIKO
UDALA

Argazkilaria: Josu Alizalai



Gipuzkoako
Foru Aldundia

 gizarte
kutxa

ARTZAIN
EGUNA 
L E G A Z P I

Aurkibidea

<u>3</u>	Ataria
<u>5</u>	Gipuzkoako Artzai Gazta 27. Lehiaketa
<u>7</u>	Emakumeak artzantzan
<u>9</u>	Gazta Lehiaketako txapeldunak Legazpin
<u>11</u>	Angel Alberdi eta Atanasi Gesalaga -omenduak-
<u>13</u>	Juan Lizarralde -omendua-
<u>14</u>	Dum dum dum dum ...
<u>17</u>	Artzain aipagarria
<u>18</u>	2011eko Artzain Eguneko egitaraua
<u>20</u>	Kostuak gora, salmentak behera, etorkizun iluna
<u>22</u>	Artzain Amerikanoa: Iñaxio Arrieta “Jaio”
<u>24</u>	Eduardo Urarte: Artzaintzarekiko maitasuna
<u>28</u>	Artisau zerrenda
<u>30</u>	Gipuzkoako XLIII. Euskal Artzain Txakur Lehiaketa
<u>31</u>	Artzain txakur lehiaketako txapeldunak Legazpin
<u>34</u>	Bi Artzain Eskola Euskal Herrian elkarren eskutik



Hainbeste ilusioz hasi genuen Artzain Eskolako ikasturtea jada amaitu dugu eta artzaintzaren inguruan hainbat gauza ikasi ondoren, gaur Legazpin elkartzen gara artzaintza maite dugun guztiok. Zuen handitasunak eraginda gatoz gu ere artzain gazteak barruti honetara.

Milaka aldiz entzun dugu artzaintza ogibide zaila dela, baina zuei esker hainbat urtetako tradizio eta ofizioak aurrera jarraitzen du.

Gaur egun, Euskal Herrian ditugu mendi ederrenak eta hori artzainei zor dizuegu; zuek landuak dira eta zer esanik ez, hain ezaguna den Idiazabal gazta.

Legazpin gaur badago zer ikusia; gazta lehiaketa, artzain txakur txapelketa, hazarkuma eta aharien enkantea eta batez ere ardi latxa onenaren aukeraketa.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkizuegu Artzain Eskolakoiei eta baita zuen baserrietan hartu gaituzuen artzainei.

Animatu zaitetze, merezi du eta!

“ Euskal Herrian
ditugu mendi
ederrenak eta
hori artzainei
zor dizuegu ”

Mikel Arregi eta Maialen Madina



ZITUAK • ONGARRIAK • LUZERNAK • HAZIAK



Unamuno


P E N T S U A K



- Pentsu elaborazioa
- Ongarri eta zitu komertzializazioa
- Fitosanitario atala
- Zoosanitario atala
- Biltegiatze moeta guztietarako estalkiak.

KONTSULTA ITZAZU GURE SALNEURRIAK

Ondarria Poligonoa, z/g -Tfnoa: 948 56 28 29 / Faxe: 948 56 30 02 - **ALTSASU** (Nafarroa)



URKAIKO

GURE BASERRIETAKO OKELA
CARNE DE NUESTROS CASERIOS

Lehiaketarako oinarrizko Araudia

1. Parte hartu ahal izateko beharrezkoa da Artzai Gaztako bazkide izatea eta izen emateko bertara zuzendu beharko da.
2. Gutxienez bi hilabetetan ondutakoak izango dira.
3. Gaztak jasoko diren mahaian, gaztari zenbaki bat ezarriko zaio eta ez da beste inolako ezaugarririk onartuko, Idiazabal Jatorri-izenpean onartutako gaztei dagokien kaseina plaka izan ezik.
4. Kontseilu Erregulatzailearen fitxa ofiziala erabiliko da, euskaraz nahiz gazteleraz.
5. Dastatze- mahai bakoitzean, gutxienez Kontseilu Erregulatzaileko Dastatze batzordeko kide bat egongo da. Beste kideak antolatzaileak aukeratuak izango dira.
6. Lehiaketaren dastatze mahai bakoitzean lehiaketa antolatua duen lurraldekoa ez den artzain bat egongo da.
7. Gaztaren benetakotasunaz zalantzarik egonez gero, antolatzaileek dagokien ikerketa egiteko neurriak hartzeko eskubidea izango dute.

sariak

1. Saria 540 € eta garaikurra
2. Saria 375 € eta garaikurra
3. Saria 260 € eta garaikurra
4. Saria 195 € eta garaikurra
5. Saria 125 € eta garaikurra
6. Saria 95 € eta garaikurra
Herriko lehenari garaikurra



...goiherriko ahotsa...

F.M. 89,2 - STEREO



Tfnoa: 943 80 10 41 - Faxe: 943 8013 47
Zurbano, 20 - SEGURA (Gipuzkoa)

GIPUZKOAKO
EHNE



Tel: 943 65 42 81 -Faxe: 943 65 40 09

Nafarroa Etorbidea, 6-2
20400 TOLOSA

 **ehnelur**
euskarriko nekazarien elkartasuna

- Aseguruak - Proiektuak
- Lur Neurketak, GPS - Gasoila
- Balorazioak - Peritazioak

Nafarroa etorb. 6-2. 20400 Tolosa. 943653590.
Iberotarren plaza. 5 beh. 20730 Azpeitia. 943813928

 **Gurdi**
Kooperatiba Elkarte

Baserritarren denda, zuretzat ere zabalik

ANOETAKO DENDA:

NEKAZAL TRESNAK, PENTSUAK, LOREZAINZTA, BOTIKAK, ARTO GOZOA ETA BERDEA, PLASTIKOA...
ERROTA INDUSTRIALDEA 5 A ETA 5 B - 20270 ANOETA - Tf. 943655880 / FAXA: 943651191 / 638051083 (MIKEL)

ZARAUZKO SALTOKI BERRIA

AGRITUBEL BURDINEZKO MATERIALA, RECK BATIDORAK, ...

ZARAUZKO PEAJE PAREAN. TEL. 943133156 / 638051083 (MIKEL)

Gaur egun emakumeak bizitzaren askotariko arlotan duen rolari buruz hitz egitea modan dagoela dirudien arren, oraindik ere ez da lortu benetako aintzatespenik, eta ez gara eskubideen aintzatespenaz soilik ari. Hitz hauen helburua ez da adierazpen berri bat egitea, baizik eta emakumeak gure etxe eta baserrietan izan duen rolari buruzko gogoeta bat bultzatzea.

Heldutzat jotzen dugun euskal gizarte bat osatzen dugun heinean, ezinbestekoa da artaldeak zaindu eta gaur egun aspaldian ziren bezala ezagutu ditzagun lortu duten emakumeek egindako lana aintzatestea; askotan, zeregin hori gizonezko artzainekin lotzen dugu bidegabe, eta ohikoa da pentsatzea gizona izan dela historikoki gure latxa ardiez arduratu dena. Gauzak horrela, gaur Legazpin ospatzen dugun Artzain Egun honetan zera lortu nahi dugu: emakumeek aspaldi-aspalditik baserrian, eta zehazkiago artaldeak zaintzen, egindako lana aintzat hartzea.

Betidanik esan da gure Gizartea Matriarkala dela, zentzu horretan, ezin hobea da emakume artzainen adibidea. Emakumea betidanik arduratu da baserriaz, familiaz, inguruko lursailez eta abere larriez (horien artean behi- edo idi-pareak, baserriko lur orotako traktore); udaberri-uda partean, udazkenean ondo sartuta egon arte, senarra mendiko larreetan zegoenean eta baita urteko gainontzeko denboraldi guztietan ere, artaldearekin baserrian bertan eta inguruko haranetako lursailetan egin beharreko zereginetan eragile aktibo izanik. Neguan transhumantzia aritzen ziren artaldeek kasuan, batzuetan familia osoa lekualdatzen zen, baserrian neguan egin beharreko lanak alde batera utzi gabe.

Gaztagintzari dagokionez, badirudi duela urte gutxi arte gazta egitea (batez ere mendiko larreetan) senararen lana zela emakumeak zeregin horretan parte hartuko ez balu bezala. Baina denborarekin gazta egiteko teknika berriak ezarri dira, prozesuetako zorrotasuna eta kontrolak areagotu dira eta Idiazabal Jatorri Deiturak baldintzak ezarri ditu...horren guztiaren ondorioz, emakumeak hartu du gazta egiteko ardura (gaztandegia duten ustiapen gehienetan) eta urte gutxitan gaztagintza berri horrek aurrera pausu izugarriak eman ditu duela 30 urte pentsa ezina zen kalitatea eta izen ona lortuz.

Gaur, emakumea lehen mailako protagonista da artaldearen xedean eta jomugan eta lan hori balioestea eta eskertzea (soberan merezia) latxa ardiaren esne gordinarekin egindako gaztarekin lotutako edozein krisialdi eta erronka gainditzeko aktiborik nagusienetakoa izan daiteke. Ustiapen bateko bizitza eta jarduera dinamizatzen du emakumeak eta familiari nolabaiteko jarraipen bat ematen dio belanez belaun jaso eta aberastuz joan den ondare profesional eta kultural guztiari esker.

Gizonezko Artzaina omendu eta aintzatesten duten jai eta jardunaldi guztietan baserrian guztiz integratuta dagoen emakumeari nolabaiteko aintzatespena eta omenaldia egin beharko litzaioke, izan ere, emakumeek mendiko abeltzaintzaren eta nekazaritzaren gidaritza hartzen badute sektorearen jarraipena eta aurrerapena ziurtatuta egongo baita.

Bukatzeko, Euskal Herriko antolakunde ezberdinek eta gizarteak oro har hitz hauen bitartez zabalitzen dugun mezua bere egitea espero dugu, guztion artean lehen mailako zereginak egiten bigarren mailan egon direnei merezi dutena eman diezaiagun.



Idiazabal Jatorrizko Izendapena



ENBA. Artzainekin BATEGINIK
Tolosa
943.650123
www.enba.es



URETXE
FRIOYARZUN S. L



Olagarai kalea, 12. tegia
5. kutxatila - OIARTZUN

Tfnoa: 943 49 19 62
Faxa: 943 49 03 36



Oñatiko GOMIZTEGI artzain-eskolan hozteko instalazioak jartzeko proiektua eta betearazpena.

Gaztaren afinatu eta mantenimendurako kamarak.
Salmuera errefrigeragailuak, gazitegiak.
Izotz pilaketarako ontziak.
Humifikagailuak, deshumifikagailuak.

Gazta Lehiaketako

txapeldunak Legazpin

22. edizioa



Urtea	Izena	Herria
1990	Migel M ^a Agirre	Alegia
1991	Jose Ramon Etxeberria	Legazpi
1992	Migel M ^a Agirre	Alegia
1993	Julian Etxeberria	Berastegi
1994	Kontxi Aldasoro	Mutiloa
1995	Kontxi Aldasoro	Mutiloa
1996	Ardi Gazta Kooperatiba	Azpeitia
1997	Patxi Otaegi	Beizama
1998	M ^a Karmen Otaegi	Segura
1999	Ramon Ugarte	Oñati
2000	Galtzata Elkarte	Oiartzun
2001	Jose Migel Azurmendi	Zegama
2002	Nikolas Segurola Etxaniz	Oñati
2003	Ardi Gazta Kooperatiba	Azpeitia
2004	Maria Angeles Iñurrategi	Zerain
2005	Jesus Ansola	Elgoibar
2006	J. Aranburu Elkarte	Idiazabal
2007	Jesus Ansola	Elgoibar
2008	J. Aranburu Elkarte	Idiazabal
2009	Jesus Ansola	Elgoibar
2010	J. Aranburu Elkarte	Idiazabal

J. Aranburu Elkarteak
eraman du
azken garaikurra
2006 eta 2008
urteetan bezala.



HERNIALDE LANTEGIA, S.L.L.

NEKAZARITZAKO TRESNAK

AGRIUBEL

STIHL®



GOLDONI

AEBI

DeLaval

RECH

USABAL 44 Pol. Ind. Arzabalza - Nave 19
20400 TOLOSA

Ixoko Eder
ELECTRICIDAD

☎ Mobila: 639 846 911 - Raul

☎ Mobila: 606 901 369 - Iñaki

DeLaval



- Jesteko makinak eta tankeen muntaketa eta mantenua.
- VMS (Jesteko sistema boluntarioa)
- Ardien janemateko zintak, ...

Tallerekoa: 943 890135 - Etxekoa: 943 833164 - Kurpidea Auzoan, 23 - 20809 AIA (Gipuzkoa)

IBAI-EDER

Urrestillako Nekazal Kooperatiba

Gipuzkoako baserritarren zerbitzura

Tfnoa: 943 81 43 43 - Faxa: 943 81 43 08

20738 URRESTILLA-AZPEITIA

Bellotza
UGARTE

Kantxak

Bailara hontarako toki berezi bat,
animali handi eta txikiak.

- etxeko animaliak
- janaria eta osagarria
- zoosanitarioak
- lorezaintza
- fitosanitarioak
- keramika
- burdindegia
- brikolajea
- nekazaritza eta abeltzantzarako produktuak

Albaitaritza
Euskal baserritarren zerbitzua

Tel.: 943 78 03 04 • 656 79 48 15
Bidebarrieta, 19 • 20560 OÑATI

Angel Alberdi Aldalur eta Atanasi Gesalaga Unanue

Angel Alberdi, laurogei urte gaiditu dituen artzain baserriar hau, Auntza baserrian jaio eta bizi izan da bizitza osoan. Aizarnako Ezkuru baseriko Anatasi Gesalagarekin ezkondu eta hiru alaba eta bi seme ko familia osatu dute.

Odria mendian, izen bereko auzoan kokatua dago Arauntza baserria. Azpeitiako herrigunearen bista ederrak ikus daitezke, mendiaren goialdean kokatua dagoen baserri honetatik.

Angel etxeko tradizioarekin jarraituz izan da artzain, bere etxean eta baita Atanasiarenean ere betidanik ezagutu baitituzte ardiak. Hasiera batean hiru baserriarren artean sortu zuten esne behien kooperatiba batean lanean aritu zen. Bertan hamabost urtez ibili ondoren, kooperatiba utzi eta artzaintzari dedikazio handiagoa eskaini zion.

Nahiz eta lehendik bazituen ardiak, unerik oparoenean 200 buruko artaldea izatera iritsi zen, beti latxa mutur gorriak. Baserriar artzaina izan da Angel eta ardiez gain larre behiak ere izan ditu bere ustategian. Gaur egun 60 buruko artaldea eta larre behiak ere baditu ezer egin gabe egon ezin den gure artzainak.



Udan non pasatzen zuen galdetu diogu Angeli eta gaztea zela bere artaldearekin Izarraitzera joaten zeneko udarak gogoan dituen arren, bere baserritik gora kokatua dagoen Arroita mendian izan ditu udarako bazka lekuak. Neguan etxera jaitsi eta baserri inguruan konpondu izan da. Arrazoi horregatik, ez du ez morroirik ez eta ere mendiko txabolaren beharrik izan, "txakurrekin ongi defenditu izan naiz" dio.

"Jatorriz, bai nire aldekoak baita emaztearen aldekoak ere artzainak izan dira, honetaz arrerakoa ikustear dago"

gure omendua

Angel Alberdi Aldalur

1930. urtean jaioa.
Arauntza baserria - Azpeitia

Atanasi Gesalaga Unanue

1934. urtean jaioa.
Ezkuru baserria - Aizarna



OLANAK ATOIETARAKO ETA 4x4

Itxiturak
Fatsxadako Olanak
Zarroak

LLAZAPLUS ZENTROA



INSTALATZAILE OFIZIALA

Sareak
Olana Industrialak
Olana alokatzeko



Tel. 943 88 02 43 - Faxa: 943 88 87 13

e-mail: tjauregui@bancogui.es

Antzizar Auzoa - BEASAIN (Gipuzkoa)

www.toldosjauregui.com



OIHAN M.N.I.

LANDA-INGENERITZA

BASERRIAK ETA LANTEGIAK
ERAIKITZEKO PROIEKTUAK.

TXOSTEN GEOTEKNIKOAK

NEKAZARITZAKO-BALORAZIOAK

José Antonio Prieto Visiedo / Tfnoa: 670 42 09 81
NEKAZARITZAKO INGENIARIA

Roberto González Ayastuy / Tfnoa: 670 51 88 00
GEOLOGOA

Ibarluze Industrialdea A14-2* / Tfno. Faxa: 943 33 06 08 / e-mail: OIHAN.ING@telefonica.net / HERNANI (Gipuzkoa)



NEKOTZ



albaitaritza klinika

clínica veterinaria

- Medikuntza Orokorra
- Kirurgia
- Ospitaleratzea
- X izpiak
- Odol-analisiak
- Elektrokardiografia
- Elikadura-dietak
- ile-apaindegia
- Larrialdiak
- Ekografia:
- zerbitzu berria

Zerbitzuak:



→ ANA ALUSTIZA ZABALETA / Filipinas uharteak, 5 - ZUMARRAGA - Tfnoa: 943 72 49 26

Castillo

HOTELA JATETXEA

Tfnoa: 943 881 958 - Faxa: 943 883 460

e-mail: recepcion@hotelcastillo.info

Madrid-Irun errepidean, 419 Km.

20212 OLABERRIA (Gipuzkoa)

URBELTZ

T A B E R N A

Beillotzan bertan jaio eta bizi izan da beti 85 urte betetzear dagoen artzaina. Gaur egun, bere iloba Javierrekin bizi da.

Santutegirako bidea utzi eta sakonaren barrenera sartuta kilometro batzuk egin ondoren iritsi gara Beillotza baserrira. Zelai eta pagadiz betetako paisaia ikus daiteke bertatik Juanek beti ezagutu ditu ardiak baserrian eta etxeko tradizioari jarraituz artzaina izan da bera ere. Baina gaur egungo bizitza bere gaztetan bizi zuenarekin alderatuz oso diferentea dela esaten digu. Orduan etxean artoa, baba, patata eta beste hainbat gauza ereiten zituzten eta gaztainak eta basoko beste fruitu batzuk ere biltzen zituzten. Guzti honekin eta behiek ematen zieten esne eta haragiarekin, ez zuten gauza handirik erosi behar izaten.

Beti izan ditu ardiak baina ez kopuru handitan, 60 bat ardi, larre-behiak eta behorrak. Gehienetan latxa mutur beltzak izan zituen arren, Sasardiak ere izan zituen. Goizuetatik ekarri zituen 13 buru. Oso biziak zirela kontatzen digu, ahuntzaren pareko. Oso arkume onak egiten zituela baina dominatzeko zailak zirela eta 40 buruko artaldea zuela saldu zituen.

Baserri ondoan dagoen Urkillako zerrako Zurkutz mendian pasatzen zuten uda Juan-en ardiek eta negua iristerako etxera bueltatzen zituen. Baserritik ikus daitekeen baso bat seinalatzen du Juan-ek, garai batean bertara eramaten omen zituen ardiak. "Nik ezagututako pagadiak ikazkinek bota zituzten eta urte luzez gure ardiak larreleku izan zirenak berriro pagadiak estali ditu". Gaur egun arabarrak dira inguru horretara hurbiltzen diren artzain bakarrak.

"Urte gutxira arte igandero Urbira igotzen nintzen, han, nire belaunaldiko artzain lagun asko nituen eta festa ederrak egin ere bai!" esaten digu.

gure omendua

Juan Lizarralde Elorza

1926 urtean jaioa.

Beillotza baserria - Oñati



Dum dum dum dum...

Udarekin batera heltzen dira gure menditara dunben ta txintxarrien hotsak. Negu osoa ematen dugu artzai eta ardiok mendiko larreetara begira. Mendira lotzen gaitu indar berezi batek. Gure mendiko larreetan sortu baitgingen, bai ardi latxa bai artzaiok ere.

Barru barrutik gidatzen gaitu gure lana egiteko moduan indar honek. Milaka eta milaka urte dituen gure artzantzan sakontzen ditu bere sustraiak. Maite dugu artzaiok gure bizimodua, maite ditugu gure ardi latxak.

Ardi latxari eskerrak eman behar dizkiogu, hainbeste gauza ikasi eta jaso ditugu berarengandik. Ardi latxak egiten gaitu artzai.

Badakigu gauzak aldatu direla, batez ere azken urte hauetan. Badakigu ez dela denboraldirik onena. Baina mendeetan zehar Euskal Herriko artzaiok hainbat krisiri eman diegu buelta. Milaka eta milaka urteen buruan ikasi dugu gure lana egokitzen aurrera egiteko. Ardiak nola manejatu, bai haiek bai guk haurrera egiteko.

Gure arbaso zaharrengandik jaso genuen egiteko modua, ardiekin batera goaz udaberrian mendira, eta goiko larreetatik ibarrera udazkenean.

Ondo ikasia dugu ardiaren zikloa errespetatu behar dugula, mendez mende, milaka urteen buruan ikasi dugun gauza da. Baina latxarekin eta modu honetan lan egitearekin zer galtzen dugun ez diogu inoiz geure buruari galdetzen. Hauxe da gure apostua eta harro gaude. Badakigu azkenaldian beste arraza batzuk sartu direla gurean eta hainbat jende modu intentsibo batean lan egiten hasi direla.



Produkzio eta etekinetan soilik pentsatuz, alegia. Gaur egun berriz beste faktore batzuk kontutan izan behar ditugu:

Kontsumitzaileak, adibidez, garantia sanitarioa eskatzen digute eta horretara egokitzeko ere lan handia egin dugu.

Hau da gure apostua, eta horrexegatik egin dugu aurrera. Artzai Gaztan artzaiok badaramagu hainbat urte gauza guzti hauek lantzen. Aiton amonengandik jasotako esperientzia gaur egungo “osasun baldintzei” egokitu ditugu. Egin behar genuena, dudarik gabe.

“ Harro sentitu
gaur egun arte
ekarri gaituen
bidean egindako
lanaz ”

Beraz lagunok horrelaxe jarraitu behar degu, gogor lan egiten. Bidean agertzen zaizkigun oztopoei beldurrik gabe, aurre egiten. Orain arte aurrera atera dugu bizia honi esker, eta halaxe izango da hemendik aurrera ere.

Beraz makilaren gainean jarri, so aurrean daukazuen artaldeari. Harro sentitu gaur egun arte ekarri gaituen bidean egindako lanaz.

Orain, inoiz baino gehiago elkartu behar gara eta gure aiton amonen antzera auzolanean gure proiektuak bultzatu behar ditugu. Lehengo artzaiek ardiei ilea mozteko etabar elkartzen ziren. Lana horrela egiten ere ikasia dugu, denok batera lan egiteak indartzengaituela badakigu. Beraz, lagunok, segi aurrera.



ATARRABIA

FRIJO INDUSTRIAL
CLIMATIZACION

Gazta, aireztatze, ontze eta mantentze kamarak

Mutlva Baja-ko industri poligonoa
H kalea, 30. nabea
31192 Mutlva Baja (Nafarroa)
e-maila: atarrabiafrio@terra.es
Tel. 948 238 193
689 700 940
Fax. 948 237 573



Berezano auzoa, 5 - Tel. 943 78 25 92 - OÑATI

VACTILIA, hutsuan ontziratzeko makinak 25 modelo.
Poltsak eta osagarriak.
Zerbitzu teknika.
REMOVE PLAN-az baliatu zaitez.

vactilia



Vactilia S.A.
GIPUZKOAKO ORDEZKARITZA
GLORIA ANDRES: 943 211 957



TXIMISTA
ELEKTRIZITATEA S.L.

Mugitegi Pol. 13zk. Tfnoa. 943 72 51 50 - URRETXU

DIVA
P E N T S U A K

Pentsu konposatuak
Nahasketak
Unifeed
Abonoak
Zerrekak
Takoak

*... eta gure duntan
... eta gure duntan*

Tolosa - Azpeitia errepidea, 1. kmoa
20400 Tolosa 167 Posta bulego
tel.: 943 853 864 fax.: 943 852 539
diva@divapensuak.com



baserri berrikuntzak- industria-nabeak
etxebizitza eraikuntzak - urbanizazio obrak

Canterías Zubitxo, S.Coop.
Obrak eta berrikuntzak

Tel. Faxa: 943 730 691 - www.zubitxo.com - Zubitxo, 14 - LEGAZPI (Gipuzkoa)



era guztietako baso lanak...

MENDILAN
LEGAZPI, S.L.



Industrialdea 39-P - Tfnoa.-Faxa: 943 73 03 28
Tfno. mugikorak: 608 67 48 03 - 629 41 56 17
www.mendilan.com - 20230 LEGAZPI (Gipuzkoa)

ELE-Gipuzkoa elkarteak urtero eman ohi du, Artzain Egunaren barruan, artzain aipagarrienaren saria. Txapel hau elkartearen barruan buru belarri lan egin duen elkarteko bazkide den artzain bati ematen zaio, hobekuntza genetikoan eta artzaintzaren alde kementsu eta modu berezi baten aritu den artzainari.

Aurtengoan, Legazpiko Erreixabal baserrian bizi eta artzaintzan aritu den Juan Joxe Arangureni emango diogu txapela. Erretiroa hartu aurretik, artzaintzaren alde egindako bizi-apostua saritu nahi izan du elkarteak, gaur egun ezagutzen dugun ardi sektorearen bilakaeran egindako lana eskertuz.

30 urtetan artzaintza asko aldatu da eta zalantzarik gabe bilakaera honetan sinisten eta bultzatzen aurrenetakoa izan zen Juan Joxe, elkarte ezberdinen sorreran parte hartuz, artzainen esku hobekuntzarako tresnak jartzeko helburuarekin.

Gaur egun ere Juan Joxek eta Arantzak kudeatzen duten baserria eredugarria da edonorentzat; ardiak, larreak, gazta, museoa...

Aitortza hau egiteko Artzain Eguna bezain leku aproposik ezin dugu irudikatu elkartetik, zalantzarik gabe artzainen festa izan bai da Erreixabalen ume kuttuna. Legazpin finkatu eta gaur egun duen izena lortu izana berari zor diogu neurri handi batean.

Eskerri asko Erreixabal, jubilatuta ere segi artzaintzaren alde lanean!



2011ko Gipuzkoako Artzain

Goza ezazu
Artzain Egun
honetan aukeran
dituzun ekitaldietaz,
egun osoan zehar.



Irailak 2. Ostirala

Latxa-poteo: Hiru gunetan artzaintza hobeto ezagutzeko aukera, musika eta produktuen dastaketa.

Ordua: Arratsaldeko 19:30etan.

Tokia: Udaletxe atzeko plazan.

Irailak 4. Igandea

- 9:30 Dana prest.
- 10:00 Postuak ireki egingo dira
- 10:00-10:45 Gaztak jasotzeko tartearen hasiera
- 11:00 Gipuzkoako Ardi Gaztaren 27. lehiaketa
- 11:00 Gazta dastaketa popularra (1go. gazta bukatzen den arte)
- 11:15 Gaztagintzaren lehena eta oraina
- 11:30 Gaztetxoen Gazta Lehiaketa
- 12:00 Ardi Okela Gertatze Gipuzkoako 21. lehiaketa
- 12:15 Ardiak mozte erakusketa
- 12:45 Ardi okel banaketa.
- 13:00 Omenaldiak:
 - Gipuzkoako 4 aiton-amon artzainei.
 - Ameriketako artzaintzan aritutako 4 artzain euskaldunei.
 - Eduardo Urarte

Ondoren sari banaketa

Goizean zehar

- Euskal Herriko Ardi Latxa arrazako ardi eta ahari erakusketa
- Gazta salmenta.
- Sagardo dastatzea.
- Gazte eta helduen Rally Fotografikoa. IKATZA taldea.

Herri bazkaria

Ordua: 14:30

Tokia: Jubilatuen egoitza (txartelak salgai egongo dira goizean zehar).

- Menua:
- Foie micuit tostadekin.
 - Tuterako kukubiltxoak antxo eta Idiazabal gaztarekin.
 - Karrilerak saltsan purea eta piperrekin.
 - Idiazabal gazta tarta.

Arratsaldean

Gipuzkoako 43. Artzain Txakurren Txapelketa.

Ordua: 17:30

Tokia: Urtatzako Zelaia "pantano bidean"

Kostuak gora, salmentak behar

Artzaien produkzio denboraldia bukatzeaz da, bukatzeaz neguko neke eta ezinak. Garaia da, ardiak mendira bidali eta merezitako atsedenez gozatzeko. Atsedena neurri batean baina, denboraldian egindako gazta, prezio duinetan saltzeko ekinaz gain, hurrengo denboraldia antolatu eta prestatu behar baita.

Gazta egiten duten artzaiek, aurreko denboraldiko lanaren etekina, gazta salmenta batez ere, osorik bereganatu gabe, hurrengo denboraldiko prestakuntzan aurreratu beharra du; Azpiegitura eta tresneriaren konponketa eta mantentzea burutu behar du. Ardien elikadura inbertitzea ere ezinbestekoa da. Esnea gaztagile industrialei saltzen dien artzaien kasuan, are larriagoa da. Emandako esne guztia kobratu gabe, esnearen preziorik jakin gabe, bilketa epeak finkatu gabe eta hurrengo urteko esne bilketa ziurtatu gabe, antolatu behar baitu hurrengo denboraldia. Inbertsio arriskutsua baino suizidioa. Amildegia hertzean dira artzaiek.

Horren lekuko iragan kanpainaren hasieran jasandako egoera. Gazta salmentek bera egitearen ondorioz kamarak beteta zituztela argudiatuz, hasiera baten ez zitzaieela esnerik bilduko jakinarazi zien artzaiei industriak. Azkeneko momentuan jakinarazi ere. Batzuk jaisten hasiak zirenean, beste irtenbide eta aukerarik jorrazteko denborarik ez zenean. Horren ondorioz, egoera zailak bizi izan ziren. Batzuk ardiak antzutu zituzten, beste batzuk jaitzako esnea estoldan behera bota edo inprobisatuz gazta egin beste aukerarik ez zuten. Halako baten industria hasi zen esnea biltzen, baina, lehenengo hilabeteetan Idiazabal Jatorri Izendapenetik kanpoko gaztak egiteko. Jatorri Izendapenetik kanpoko esnearen prezioan noski, ia %30 merkeago. Galera ekonomikoak handiak izan dira.

Baina galera ekonomikoaz gain, ezintasuna eta etsipena izugarriak dira. Mendekotasuna gero eta handiagoa da eta ondorioz, negoziatzeko eta erabakitze ahalmena murriztagoa.

Ekoizpenean mendekoa da artzaia. Azpiegitura eta tresneriaz gain lehengai asko, gero eta gehiago, kanpotik lortu behar dituelako eta prezioa negoziatzeko ahalmenik ez du. Salmentan ere mendekoa da. Sarri, ekoizpen kostuetatik behera saldu behar izaten ditu gazta, esnea eta arkumea. Ez du bere produktuen prezioak defendatzeko ahalmenik. Elkarlana beharrezkoa da krisi momentu hau gainditu eta aldeko egoera finkatzeko:


Artzai eta laborarien arteko elkarlana. Artzaiak behar dituen lehengaien ekoizle izanik, bitartekari eta tarteko espekulazioak ekiditeko.

Artzai eta herriaren arteko elkarlana. Elikadura ekoizlea izateaz gain ingurugiroaren zaintzaile eta kudeatzaile izanik, salmenta bide laburrak bultzatu eta elkar hezteko komunikazio bideak garatzeko.

Artzaien arteko elkarlana. Administrazioaren aurrean, eskariak egiteko edo inposaketei aurre egiteko, eta bitartekariekin negozi-atzerakoan beharrezkoa da antolatzea. Pitzadura gabeko talde hertsia osatzea. Artzai guztien onurarako izango diren erabakiak guztien artean hartzea. Negoziatzeko ahalmena artzaien esku dago, elkartu eta parte hartzearen baitan.

Datorren kanpainarako esne bilketa antolatu beharra dago. Azken momentura arte gertatuko denaren zain egon gabe, garrantzitsua da artzaien partehartzea martxandiren proiektu eta ekimenetan.

Guztien iritzia baita garrantzitsua. Artzaien esku dago iazko egoera ez errepikatzea.



Artzain amerikanoa: Iñaxio

Urteroko ohiturari jarraituz Gipuzkoako Artzain Egunak Ameriketara artzain lanetan aritutako euskaldunak gogoratzen ditu. Euskal gazte hauek, etorkizun baten bila joan ohi ziren Ameriketara. Batzuk bertan geratzen ziren beste batzuk, berriz, zenbait urte han igaro ondoren etxera itzultzeko bidea hartu zuten. Denak izan dira Euskal Herriko artzaintzaren historiako atal baten protagonistak, Ipar Ameriketako artzaintzako Euskal artzainak... eta gure ordezkari bikainak, gure izaera eta kultura urruti dauden zokoetara zabalduz.



Iñaxio Arrieta "Jaio"
Maria Isabel Salutregi
emaztearekin.

Iñaxio Arrieta, "Jaio", da atal honetako aurtengo Gipuzkoako Artzain Eguneko protagonista. hogeitahiru bete berri zituela Ameriketako bidea hartu zuen anai zaharrenen urratsak jarraituz. Amerikano familia dela esan daiteke, hiru anaietatik hirurak izan baitira Ipar Ameriketara artzain lanetan eta gaur egun oraindik beste bi anaiak han dira.

Soldaduska amaitu ondoren etxera itzuli zen baina anai zaharrenarengana Ameriketara joateko asmoarekin. Bitartean, Deban harrijasoi-tzaile txapelketa irabazi zuen eta beste lanpostu eskaintzak izan arren, Boisetik 40 kilometroetara dagoen Emet hirira joateko asmoarekin jarraitu zuen. Handik urte batzuetara gurasoak bakarrik geratu ziren baserrian etxeko hiru semeak Ameriketara joanak baitziren. Urte zailak izan ziren familiarentzat. Gurasoak bakarrik baserrian eta hiru senidek Ipar Ameriketara lanean. Jaiok

zortzi urte egin ondoren etxera itzultzea erabaki zuen, bertan horrenbeste denbora zain izan zuen andregaiarekin ezkondu eta familia osatuz.

1965ko abenduan joan zen eta 6 urtez artzaintzan aritu zen. Jaiok kontatzen digun bezala, ingelesez hitz egiten ez zutenez txartel bat jartzen zieten nongoak ziren adierazteko eta nora joan behar ziren. Chicagoko aireportuan zirelarik aireportuko langile batek "beee beee" eginez harrera zien.

Iritsi zeneko hotza ahaztu ezinekoa du. Bertara iritsi eta lehenengo gauza behar zituzten gauza guztiak erosi behar izaten zituzten: lo egiteko denda, arropak, botak, denda, etab. Lan gogorra zen, batik bat hasieran, ezagutzen zuten artzaintza guztiz ezberdina zelako. Artaldeak handiak ziren eta bi artzainen artean 1.100 ardi eta 1.100 arkumeko bandak kudeatzen zituzten. Guztira 12 banda ziren, hau da 12.000 ardi.

Urtarrilean hasten ziren erditzeak eta hor izaten zen lan estresanteena, batik bat gauetan. Urte batez Jaioek lehengusu batekin lan egin zuen. Gustoko lana ez zenez eta gauak partekatu egin ohi zituzten arren, lehengusua ez zen kontent eta sarri esaten ohi zion ea kastigatuta ote zegoen...

“ Ipar Ameriketean artzain izan direnak esan ohi dute handik ez dela inor etorri negarrik egin gabe...” ”

Apiriletik Maiatzera arte Boiseko desertuan ibili ohi ziren. Desertura joateko bidaia kamionez egiten zuten. Ondoren erreserbara, mendira, pasatzen ziren eta handik rantxora berriz oinez jaisten ziren, hotza egiten hasten zenean eta lehenengo elurteak hasi aurretik. Horrela kontatu digu gau batez elurra egiten hasi eta goizean jaiki zirenean belaunerainoko elurra zegoela. Lankidea zaldiak askatzera joan zenean dendara itzuli zen bere lana amaitu gabe egiten zuen hotza jasan ezina zelarik eta Jaiori horrela esan zion: "Iberia hemen eukiko banu bakarrik hemen geratuko hintzake..." Behin eta artaldeak menditik jaisten hasten zirenean artzain gutxiago geratzen zen mendian. Mendiko baldintza gogorak utzi eta rantxora jaisteko desiratzen egoten zen arren, anaia maiordomoa izateak ez zuen lagundu. Urte guztia mendian pasatzen zuen Jaiok, anaia zaharrak ez zuelako nahi beste langilek pentsa zezaten haren alde egiten zuenik besteak alde batera utzita. Hona hemen anai nagusia maiordomoa izatearen desabantaila bat...

Ipar Ameriketean artzain izan direnak esan ohi dute handik ez dela inor etorri negarrik egin gabe ardiren bat galdu duelako, artaldearekin pasatu gabe geratu delako, ekaitz batek harrapatu dituelako... Jaiok ondo oroitzen ditu mendian goran bizitutako ekaitzak. Pinu handiko punta guztiak zartatuta egoten ziren tximistek jota.

Basa animaliei buruz galdetzen diogunean hartzak harrapatzeko sistema bat zutela esaten digu eta bat ehizatu ondoren belarriak moztu, ugazabari erakutsi eta 10\$ irabazteko aukera izaten zuten. Kaskabel sugeak ere kezka handia sortzen zuten gure artzainen artean. Sugereren soinu berezia entzun ezkeru hura harrapatu arte ez ziren gelditzen eta lo egiteko dendarik ere ez zuten jartzen.

Baina dena ez zen triste eta gogorra, momentu onak bazituzten elkarrekin egoteko, lagunak topatzeko edo lagun berriak egiteko. Urtero, negu partean, artzainak rantxoetan zeuden garaia aprobetxatuz, "Euskal Basque Dance" antolatzen zuten. Bertan 2.000 lagun inguru elkartzen ziren eta euskal erromeri baten gisa antolatzen zuten, eliza katolikoak lagunduta. Hau ez zen antolatzen zen ekitaldi bakarra eta horrela "Basque dinner" eta "Basque picnic" ere ospatzen zituzten.

Aberasgarria da artzain amerikano hauen kontakizunak entzutea, oraindik ere elkarrekin hitz egiten hasten direnean bata besteari galdezka hasten dira "eta zure bildotsak zenbat libra egiten zuten?"... Inork ez du besteek baino bildots argalagoak izan nahi...

lñaxio eta bi lagun artaldearekin lanean.



Eduardo Urarte: Artzaintzarek

Aurten Eduardo Urarte aukeratu dugu artzaintzaren alde egin duen lanarengatik eskerrak emateko eta Gipuzkoako Artzain Egunean omentzeko. Eduardorekin hizketan hasi eta bere bizitzari buruz ari garela, azkar konturatzen gara zenbat lan egin duen artzainen eta latxa ardiaren alde. Bera izan da ere Gipuzkoako Artzain Eguneko lehenengo urtetan antolaketetan eta sorkuntzan parte hartu zuenetako bat.

Arabako mendian kokaturiko Arluzea herrian jaio zen Eduardo eta bere haurtzaroa ere bertan pasa zuen. Artzain eta nekazari familia batetik dator eta ulertzekoa da beraz artzaintzarekiko duen maitasuna. Bere jatorriak ere asko lagundu dio bere lanean, artzainek zituzten arazoak eta egoera hobe ulertzeko, gertutasun gehiagoz.

Albaitaritzatik ikastera joan zen Zaragozara eta ikasketak burutzeko esnetarako ardiei buruzko lana egin nahi zuen. Oso zaila egin zitzaion ez bai zeuden datuak eta informazio bilaketa honetan izan zuen Gipuzkoa bisitatzeko aukera, ordura arte ez bai zuen ezagutzen eta. Horrela ba 1980. urtean ikasketak burutu zituen, Latxa arrazako esnetarako ardiaren ustiakuntzari buruzko tesiarekin. Etxera itzuli zen, lanera. Bere etxean dagoeneko ez zituzten ardiak, behiak eta soroak baizik, baina bai ordea bere osabak. Baina urte baten buruan beste albaitari batzuekin inguruko herrietan lanean hasi zen, nahiz eta garai horietan ez zen batere erraza.

Urte haietan Eusko Jaurlaritzak Latxa arrazaren hobekuntza genetikoko programaren barnean beka bat atera zuen eta Eduardo aurkeztu, eta esnetarako ardiaren teknikari espezialistako plaza lortu zuen. Esnetako ardiaren elkartearen sorkuntzan parte hartu zuen hasi berri zuen lanpostu honetan eta identifikazio eta saneamendu lanak ere egiten zituen. Ez zela bide erraza izan kontatzen digu, jende asko jarri behar zen ados eta batzuetan gauza garrantzitsuengatik baina bestetan txikikeriengatik, istilu ederrak izaten zituzten. Esne kontrolak egiteko antolakuntza prestatu zuten; lan honekin esnetarako ardiari bultzada bat eman nahi zitzaion garai haietan

esnetako behien itzalean baitzeuden. Esne kontrolatan jasotzen zituzten datuak Arkauten lantzen zituzten eta horrela hobekuntza genetikoko programa ezarri zuten. Kontroladore lanetan ibili zen denboran Gipuzkoa eta Bizkaiko baserriak bisitatu zituen eta lurraldea ondo ezagutzeko aukera izan zuen.

“ Mugaz bestalde denbora dezente pasa zuen, aurrerratuagoak omen zeuden ”

1984. urtean ustiategietako ardi hoberenak aukeratzeko hasi ziren, hauen arkume har hoberenak Arkautera eramateko eta horrela ahari hoberenak aukeratzeko joateko. Hazi-jartzearekin hasi ziren eta kontroladoreak formatzeko lanetan aritu zen orduan. Latxa arrazaren hobekuntza genetikoa buruz iparralden asko ikasi zuela dio Eduardok, baita hazkuntzari buruz ere. Mugaz bestalde denbora dezente pasa zuela kontatzen digu, aurrerratuagoak omen zeuden eta haiengandik ikasten.

1979-1984 urte bitartean Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Zuzendaria izan zen. Oso lan desberdina egin zuen garai horietan eta beste errealitate batzuk ezagutzeko aukera izan zuen. Ondoren, berriz Arkautera itzuli zen, Latxa ardiaren hobekuntza genetikoa lan egitera.

Artzain eskolari buruz ere hitz egin dugu Eduardorekin, bera izan baitzen sustatzailetako bat. Gomiztegiko ustiatagia leku egokia zela ikusten zuen, nahiz eta hasera batean ez zuten ardiekin lan egiten, hauengatik apustu egin zutenean, 10 urtetan artaldearen ekoizpena hirukoiztu zuten eta. Gainera komunitate frantziskotar bat izatea ere lagungarria izan zitekeen eskolarentzat. 1997. urtean hasi ziren eskolan, 5-6 ikaslerekin. Bera lehenengo urteetan aritu zen. Artzain Munduko partaide ere bada Eduardo. Nahiz eta txikia izan munduaren parte zarela kontatzen digu eta Artzain Mundua proiektuaren bidez, Euskal Herriko artzaintzaren kultura, pareko errealitatea

duten beste herrialdetako kultura batzuetara hurbiltzen saiatu ziren ospatu zituzten kongresuekin.

Gaur egun elikagaien osasunbidean lan egiten du Eusko Jaurlaritzan. Slow Food arabako kide da eta nahiz eta artzaintzari bereziki zuzendua ez egon, funtsean, berdinagatik lanean eta borrokan dihardu: ekoizle txikiekin lan egiten, komunitate txikiek bere lekua izan dezaten, landa bizitzaren garrantzia bultzatzen eta gizartearen deserrotzearen aurka. "Gaur egungo gizarteak ekoizlearengatik oso urruti dago, dena merkea nahi du eta berdin zaio ekoizleak gutxi jasotzea, hori aldatu beharra dago."

Eduardo Urarte
ardiekineko ahariekin.



Eskerrik asko Eduardo, egin duzun lanagatik eta aurrerantzean ere artzainen komunitate txikien alde lan egitera animatzen zaitugu, zure bizi ikuspegia gizarteari zabaltzen, asko daukazu irakasteko eta!

 taberna
Oilarra

**MANDIOLA
TABERNA**

**Pintxoak - Ogitartekoak
Plater konbinatuak**

Plazaola 10  LEGAZPI

**KARIBE
ZAHARRA**

Mundiala, hi!

Nafarroa kalea, 2/g. - LEGAZPI

**IBAIOND
TABERNA**

Nafarroa, 10 behe
Tfnoa: 943 73 42 84
- LEGAZPI -

**ANDRES
EKEA**

taberna - jatetxea

Nafarroa kalea, 8 · Tfnoa: 943 73 04 55 - LEGAZPI

GIROA TABERNA

Plazaola, 2 - LEGAZPI

**AZTIRIA
erretegia**

BASERRI
GIROKO
SUKALDARITZA

 943 73 36 22

Santa Marina Auzoa
(AZTIRIA) Gabiria

Laubide Taberna

Laubide Kalea, Legazpi.



NEKAZAL TRESNAK

T. 943 69 63 83 - F. 943 69 62 98

seikin@seikin.net

Apatta Erreka Industrialdea

Erroizpe kalea E-1 - IBARRA (Gipuzkoa)

GEA

NEKAZARITZA EGIMENDI

Tfnoak.: 943 69 04 90 - 943 69 30 17 / Faxa. 943 69 31 42

Donostia-Gasteiz Autobidea - IRURA (Gipuzkoa)



Artisauak - Artisautza erakusketak

Egur eta harri tailak

Javier Arrieta Arriaga (1959)

Haritza eta gaztainaren egurra gaitzat harturik, kutxak, ispiluak, amarraria... eta abar egiten ditu. Gubiaz eta zizelaz baliatzen da nagusiki.

Txirbil taldea

Egur mota desberdinak gaitzat harturik, amarraria, kutxak, irudiak eta abar luze bat egiten dituzte. Legazpiko Taila tailerra.

Goarnizio gintza

Mario Santesteban Sanchez (1944)

Behi larrua gaitzat hartuz kabaleriarentzako burukoak, kollagonak eta abar egiten ditu. Bere erreminta nagusiak josteko eztenak eta "media luna" kutxatilik dira.

Haria

Jose Mari Andueza Arsuaga (1949)

Artilea kordatu eta haria maratilaz egiten du. Legazpin jaio eta bizi da.

Nekazal tresnak (txikitan)

Nicanor Modesto Rodriguez Gonzalez (1943)

Egurra eta aluminioa erabiliz, nekazaritzan erabiltzen diren hainbat tresna eta gurdi egiten ditu. Eskuzerra, mailua, zepiloa eta garlopaz baliatzen da nagusiki. San Muñonen (Salamanca) jaio bazen ere Legazpin bizi da.

Kaikugilea

Santiago Hualde Indakoetxea (1944).

Egurra eta aluminioa erabiliz, nekazaritzan erabiltzen diren hainbat tresna eta gurdi egiten ditu. Eskuzerra, mailua, zepiloa eta garlopaz baliatzen da nagusiki. Zubietan jaio eta bizi da.

Larru eta alpaka

Jose Ignacio Fariñas (1959).

Moeta desberdineko larruarekin marinel-korapiloak eginez eta alpakako elementu metalikoekin jantziz, besokoak, lepokoak eta eskumuturrekoak egiten ditu. Santurtzin bizi da.

Abarkagilea

Juan Elgarresta Murua (1941)

Larua gaitzat hartuta abarkak egiten ditu. Zulo txikiaz eta josteko uhelaz baliatzen da bere lanean. Urretxun jaio bazen ere Gabirian bizi da.

Bitxigintza

Jose Julian Segurajauregi Zabala (1955).

Fundiziotik hasita prozesu osoa egiten du eta laminatzeko makina, haria egiteko makina, etb.. erabiliz urrezko eta zilarrezko bitxiak egiten ditu. Legazpiarra da. Legazpin bizi da.



Goizean zehar, artisautza erakusketa izango da Euskal Herria plazan

Makilak

Jose Insausti Burunza (1942)

Pagoa, haritza edo urritzaren egurra gaitzat hartuta, makilak (bastoiak) egiten ditu gubia erabiliz. Makila hauei itxura berezia ematen die. Alegin jaio bazen ere Legazpin bizi da.

Kutxak

Felix Pinillos Martinez (1938)

Kutxak eta argizaiolak lantzen ditu haritz egurrean. Lejaria (Nafarroa) jaio bazen ere Legazpin bizi da 49 urtez.

Saskigilea

Iñaki Agirrezabala (1956)

Gaztain zumitza gaitzat harturik, mota guztietako saskiak egiten ditu. Labana, goraizak, matxeta, punzoia ea azia dira bere tresna nagusiak. Matximentan jaio eta bizi da.

Eskuareak

Santiago Etxaniz Juaristi (1934)

Lizar eta Akazia egurra erabiliaz eskuareak egiten ditu. Aizkora, zepiloa eta garlopoz baliatzen da bere lanean. Aizpurutxon jaio bazen ere egun Legazpin bizi da.

Zeramika

Xalinko Taldea

Buztinezko forma askotako ontziak egiten dituzte. Moldatzeko hankarekin eragindako tornua erabiliz. Legazpiko zeramika taldea da.

Ehungintza

Mari Carmen Martinez de Alegria Garcia (1959)

Ehunak, mantak, alfonbrak eta abar egiten ditu ehundegian. Legazpin bizi da.

Egurgintza

Keixart. Xabier Iraeta Otamendi (1959)

Egur mota desberditak gaitzat harturik, oroigarriak, armarriak eta hainbat gauza desberdin lantzen ditu.



Aurtengo Gipuzkoako Artzai egunaren barruan Gipuzkoako XLIII. Euskal Artzain Txakurren txapelketa ospatuko da.

Edizio honetan txakurrak artzaien aginduen esanetara egin beharreko ariketetan aldaketak izango dira. Honako egin beharrak izango dituzte:

1go ariketa:

Sei minuturen barruan, artzainaren esanetara, txakurra artaldera joango da, baina zelaiaren barrenetik; bidean bi aldiz geldiaraziko zaio txakurrari epaimahaikoak esandakoan. Ondoren, artaldera sartu eta zelai erdian dagoen hesiaren tartetik pasatuz artzaia dagoen lekura ekariko ditu ardiak. Ardiak eta txakurra artzaiaren inguruan geldi geratu beharko dira, epaimahaikoek esan arte.

Hau lortu ondoren, epaileen esanetara, eskuineko edo ezkerreko hesi-tartetik pasa beharko ardiak.

2. ariketa:

Zazpi minuturen barruan, artzainaren esanetara, banderatzoz seinalatutako bidetik joan beharko du txakurrak eta ardiengana sartu; artaldea hartu eta erdian dagoen eskortan sartzen saiatu, ardi guztiak satzea lortuz gero, ondoren zakarkeriarik gabe atera beharko dira.

Oharrak:

- Artaldera txakurren sarrerak era lasaiean egin beharko dira.
- Ariketa denetan txakurraren portaera eta artzainarekiko jarrera kontutan izango dira.
- Puntuaketa garaiean txakurrak ardiei egindako haginkak kontutan izango dira.
- Bi ariketetan, artalde osoa edo ardi batzuk hesi-tarte edo eskortaren atzekaldera pasatzen diren aldi bakoitzean, puntuak kenduko dira.
- Ariketa guztietan lortzen dituzten puntuak batu egingo dira eta puntu gehien lortzen duen txakurra izango da irabazlea.

Parte hartuko duten artzaiak

- | | | |
|---------------------------------|-------|----------|
| • Javier Zubiaurre | TXIKI | Mutriku |
| • Jesus M ^a Plazaola | GURE | Arrasate |
| • Juan Jose Arrizabalaga | AZKAR | Elgoibar |
| • Ramon Larrañaga | TXATO | Azkoiti |
| • Aitor Tato | ARGI | Ataun |
| • Jose Luis Madinabeitia | TXIKI | Oñati |
| • Miguel Arregi | MENDI | Oñati |





Urtea	Izena	Nagusia	Herria
2000	Artzai	Andres Atxa	Eibar
2001	Lista	Ramon Larrañaga	Azkoitia
2002	Argi	Jesus Mari Plazaola	Arrasate
2003	Riki	Juan Jose Arizabalaga	Azkoitia
2004	Txato	Andres Atxa	Eibar
2005	Lista	Ramon Larrañaga	Azkoitia
2006	Lista	Ramon Larrañaga	Azkoitia
2007	Linda	Jesus Mari Plazaola	Arrasate
2008	Azkar	Juan Jose Arizabalaga	Elgoibar
2009	Txiki	Javier Zubiaurre	Mutriku
2010	Azkar	Juan Jose Arizabalaga	Elgoibar



Okela



Baimendutako
harategia

Euskal
Okela

HARATEGIA • URDAITEGIA

Hipodromo etorbidea, 8 behea - **LASARTE ORIA** - Tel. 943 36 18 85
Kale Nagusia, 41 - **LASARTE ORIA** - Tel/Fax: 943 36 39 12

LEGAZPI

Nafarro kalea, 3 - Tel 943 73 18 25

xarpot



Plazaola Kalea, 10
Tel.: 943 733 375
LEGAZPI

KTL

KTL Katilu



ERAIN
TALDEA,
S.L.



www.ekain-taldea.com

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN
INSTALAKUNTZA,
IKERKETA ETA
PROIEKTUAK



Telokak: 943 34 05 09 - 556 70 22 60
Faxa: 943 34 05 09
e-mail: ekain@ekain-taldea.com

Amasatarren 6, ORERETA-ERRETERIA (Gipuzkoa)



REPARACION DE
MAQUINARIA AGRICOLA

ONDO

TALLERES

943 730 471 LEGAZPI



Toyota: guretzat kalitatea hitz-ematea baino gehiago da, gure bizitzeko modua da.



EuskoAuto TOYOTA

Tfnoak: 943 80 59 24 - 943 80 59 26
lurre auzoa, Karobi poligonoa
OLABERRIA (Gipuzkoa)

Bi Artzain Eskola Euskal Herri

Bi Artzain Eskola ditugu Euskal Herrian; bat Iparraldean, bestea Hegoaldean.

Gipuzkoan daukagun hau da guretzat ezagunena baina biak dira garrantzitsuak eta gainera beraien arteko harremana oso estua da. Biak dituzte beraien berezitasunak baina baita oso antzeko jokabideak ere. Biak saiatzen dira elkarri laguntzen eta biak eskutik doaz; bien arteko harremana geroz eta estuagoa da.

Zenbat hitzaldi eder ez du eman iparraldeko Artzain Eskolako zuzendari den Jean Luc Boucheronek Gomiztegiko IMK Artzain Eskolan? Ez bakarrik ikasleei baita hemengo eskolak antolatu dituen ikastaroetan ere. Zenbat aldiz ez dira bildu bi eskolak, barruko arazo edo jokabideak aztertzeko? Oso maitea dute hegoaldeko ikasleek Boucheron eta bere erakutsiak entzuten oso adi egon izan dira. Irakasleen balorazioa egiterakoan ere, oso goian uzten dute Boucheron jauna.

Hango eta hemengo ikasleak ere biltzen dira eta egun batzuk Iparraldean eta beste batzuk Hegoaldean elkarrekin igarotzen dituzte, hango eta hemengo artzaintza sistema, eraikuntza, komertzializazio esperientzia etab. ikusiz eta aztertuz. Hau guztia laguntasunezko giro jator batean.

Joera edo proiektu berriak sortzen ere saiatzen dira bi eskolak. Artzaintzaren onerako bada, bedi ongi etorria!

Oraingo honetan Arantzazuko IMK Artzain Eskolak bertatik pasatu diren ikasle ohiek eraginda eta irakasleek bultzatuta, elkarte bat sortzen ari dira. Esan daiteke Artzain Eskolatik igarotako gazte hauen interesa eta artzaintzaren alde lana egiteko duten gogoia benetakoa dela eta itxaropena sortzen du.



Elkarte honen izena ETXOLA izango da. Elkartek honen helburu nagusienak ardi latxa babestea eta ardi azpi-sektorearen formazioa dira. Helburu hauek lortzeko bidean, estatuak idazten ari dira eta hauek izango lirakeke ildo nagusienak:

1. Informazio, esperientzia eta ezaupideak elkartrukatzea eta sortu daitezkeen plataforma ezberdinetan parte hartzea.
2. Elkarlana eta babesa zenbait kurso, jardunaldi, mintegi, etab. antolaketan. Sektorereko azterketa eta ikerketetan parte hartzea.
3. Elkartekideen heziketa iraunkorra.
4. Komunikazio kanpainatan parte hartzea eta bultzatzaile izan.
5. Ikerketa, garapen eta berrikuntza gunean parte hartze aktiboa bultzatu.
6. Sektorereko beste entitateekin elkarlana.

Guzti hau, gure ardi latxaren eta bere produktuen defentsan; Idiazabal gazta, Eusko Label arkuma, etab.

Gazte hauen kezka eta elkar lan jator batean konpondu nahia ikusita eta eskolako arduradunen borondatea kontuan izanik, badut itxaropena!



Niko Segurola
IMK Artzain Eskola



ITSASMENDIKOI
ARTZAIN ESKOLA

**Artzain izan nahi baduzu,
zatoz eskolara!**

MATRIKULA EPEA ZABALIK

Telf.: 943 25 10 08

E-mail: artzaineskola@itsasmendikoi.net

Koordinatzailea: Batis Otaegi

Telf. Mug.: 625 709 917

www.itsasmendikoi.net

imk Arkaute ▪ **imk** Derio ▪ **imk** Fraisoro ▪ **imk** Pasaia

Babesleak:

